

aikor!

txorierriko aldizkaria

Juan Luis Goikoetxea, euskaltzain urgazlea eta Txorierri institutuko irakaslea:

“Eskolak euskaldun zaharraren etxeko berbeta alfabetatu behar du”



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Juanxu Bilbao,
Patxi Gaztelumendi, Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Saionara eta Maripi,
Arantzazu Mendiguren, Bihotz
Bakartien klubeko kidea.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Oihana Astobietta, Puri Martinez,
Lourdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Atotz Goikoetxea,
Juan Luis Goikoetxea, Fernando
Olabarrieta, Iñigo Urrutia, Arrekikili,
Gaizka Peñafiel, Begoña Vicario,
Ixone Zubieta, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Josu
Ziordia.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkarian adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.




Eusko Jaurlaritzak




Biskaiako Foru
Aldundia
Kultura Saria


diruz lagundutako aldizkaria



13 Xabier Luengas



10 Amnesty international



11 Benito Lertxundi



21 Julene Guarrotxena



27 Vietnamgo iparraldean oinez



24 Txilipitainak

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Aikor! gutunak 6Laburrak eta albisteak 10 Amnesty
international 11Gurean izan da Benito Lertxundi 12Gazteen
txokoa 13Gaztea eta... Xabier Luengas 15Zamudioko Pazko
jaiak 16Juan Luis Goikoetxea 19Txorierriko gazteak 21Julene
Guarrotxena 22Baserri mundua 23Teknologia 24Txilipitainak
26Txorierri ezagutu 27Txorierritarrak munduan
28Sukaldaritza 29Denbora pasa 30Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, Hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro _____ beste kopuru bat _____

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Asierren lehen eskola urtea



Bego Vicario (Zinemagilea eta EHUKo irakaslea)

Askok jakingo duzuenez, atzerapen intelektual zein fisiko izan dezaketen ume guztiek badute, legeaz eta gurasoek hala eskatu ezker, estimulazio goiztiarra eman diezaieten eskubidea, lehen hilabeteetik eta eskoletako hiru urteko geletan matrikulatzen diren bitartean, bertan jarraitzen baita behar duten laguntza ematen.

Asierren gure Down Sindromedun semearen kasuan ezin gara kexatu: andereño-tutoreaz aparte, laguntzaile berezia du, eta astean zehar zenbait saio berezi izan du heziketa bereziko espezialista batekin, logopeda batekin eta, oraindik oinez egiten ez duenez, fisioterapeutarekin ere.

Hala ere, kurtsoaren hasieran geneukan ardura zera zen: hezitzaile guzti hauek lehenengoz ezagutuko zutela Asier eta hutsetik hasi beharko zutela umea ezagutzen, bere lehenengo hiru urteetan estimulatzaile-psikologoarekin egindako guztiaren informazioa galduko zela, honek zeukan umearen prozesuaren perspektiba ere bertan behera geldituko zela.

Hau dela eta, bi parteei kontsultatu eta proposatu genien esperientzia berri bat, 02-03 urtean zehar Asierrek jarraituko zuela zenbait estimulazio saioetara joaten Gorabide elkarteak Bilbon duen zerbitzuan, M^a Antonia bere betiko hezitzailearekin, eta aldi berean eskolako laguntza guztia izango zuela, Kontxi, Isabel, Ines, Bego eta Anerekin. Bi alde hauek uztartze-ko kurtsoan zehar hainbat bilera egin dira, Asierren bilakaera eta beharrak ebaluatze-ko, hurrengo epearen helburuak zehazte-ko eta abar.

Kurtsoa amaitzeko bi hilabete eskas falta direla eta oraindik pare bat bilera egin behar badira ere, amaren ikuspegitik esan behar dut Asierengan somatu ditudan emaitzak oso nabarmenak izan direla, eman duen trebatze pausu bakoitzean informazio bateratua eman zaiolako eta bide batez, bai aitak eta amak ere parte hartze-ko abagadunea izan dugulako.

“Oso zail ikusten dut esperientzia honen jarraipena posible egiten duten pertsonen ez bazaie errekonozitzen”

Esan beharra dago ere, hemen oso sinple esaten bada ere, guzti hau izan dela posible bakar-bakarrik profesional hauen esfortzuari esker, proiektu berri honetan parte hartze-egatik ez baitute inolako konpentsazio ekonomiko zein ordutegikoa izan, eta egin behar izan duten guztian beren profesional zein giza maila erakutsi du. Berritzeguneko zein Gorabideko ardura-dunek, biek, estuasun ekonomikoak jartzen dituzte aitzaki gisa, baina nik oso zail ikusten dut esperientzia izugarri aberats honen jarraipena, posible egiten duten pertsonen ez bazaie nolabait errekonozitzen. Azken batean egiten ari garena ditugun errekurtsuoei etekin handiena ateratzea baita, bidean ezer galdu ez dadin.

Tximintxek batzen gaitu Derion



Ixone Zubieta Aurrekoetxea
(Lainomendi dantza taldeko partaidea eta Tximintx Euskara Elkartearen koordinatzailea)

Heldu da Tximintx gure herrira! Ez da isilean pasatu ganera, herritar guztiek euki dabe euren ahotan. Hasieran egin zan propagandagaz, herrian labazomorro plaga bat egoala uste izan zan. Misterioa argituta eta helburua lortuta, jendeak Tximintx ezagutu dau.

Herritarren harrera ezin hobea izan da. Bazkidetza egitera hurbildu diranak ez dira gitxi izan, guk uste genduzanak baino gehiago, baina batez ere eta guretzat garrantzitsuagoa dana, pentsaera edo izaera ezberdineko jendea. Gure hizkuntzak mugarik ez daukala ikusteak poztu gaitu gehien. Derion euskaldunok banatzen gaituenaren gainetik, batzen gaituenean oinarrituta aurrera goaz.

Eta Tximintxekin ados egonda, oraindik ez zarela bazkide?

Tximintxek badaki gaur egun oso lanpetuta bizi garela, lana, ikasketak, familia... Ezin doguz horreek danak itzi asteazkeneko Kultur Aretora joan eta taldeko egitura, ekintzen prestaketa eta abarrean parte hartze-ko. Baina Tximintxek zure bazkidetzarekin jakingo dau beragaz bat zatozela.

EGIN ZAITEZ TXIMINTX!

cianoplan s.a.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio

Tfnoak 944 20 97 91

944 20 97 87

<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Zure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritxi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Errepidea etxeko ateraino

Jakin bagenkian eskualdeko industrialdeak batzeko errepidea egiteko asmoa egoala eta gure lurretan sartuko zala... Baina haor gure sorpresa, orain astebate batzuk topografoa etorri zanean!

Gu Lezamako Torrean, Aretxalde auzoan hain zuzen be, bizi gara eta bertan daukagu negozioa. Hasieran aitatu dogun lez, errepidea guretzat ezezaguna ez bazan be, inork ez euskun inoiz esan ia etxeko ateraino sartuko zanik. Izan be, topografoak lurra mugarritu ondoren konturatu ginan errepidea Torretik 14 metrota geratuko zala.

Beraz, hurrengoak adierazo nahi doguz:

Ez gagoz proiektuaren aurka, baina etxeondotik ahalik eta urtinen egiteko eskatzen dogu. Hori holan izan daiten abokatu betengana jo dogu, egin beharrekoak egin dagiazan.

Errepidea dala-ta, lurra galdu ez eze, beste arazo batzuk be izango doguz, trafiko eta zarata gehiago esaterako. Ganera, istripuak gertatzeko arriskua etxeko atarian izango dogu eta, ondorioz, ez dogu lasai bizitzeko modurik izango.

Beste alde batetik, Lezaman dagoan dorretxe bakarra da gurea eta, etorkizunari begira, ondo zaindu behar dogula pentsatzen dogu. Horrexegatik, eta gure bizi kalitatearen alde, gure esku dagoan guztia egingo dogu errepidea etxeondotik ahalik eta gehien urrintzeko.

*Dominga Landeta
Iciar Llona Landeta
Pedro Dañobeitia
Jose Dañobeitia*

Espainolak eta frantsesak

2003ko martxoa zen, zamudioztar taldeak Iparraldeko lurraldeak ezagutzera ibilaldia hori zuen data. Baionara heldu bezain laster berehala ohartu ziren hiri haretako mintzaira nagusia frantsesa zeritzona zela. Nola izan zitekeen hori? Nola Euskal Herrian frantsesa? Egunak aurrera egin ahala eta Donibane Garaziko dendak ikusi ondoren Heletara heldu zen hegoaldekoen martxa. Bertan hartu zuten ostatu eta sabela ederto berdindu eta gero, amaigabeko kantak eta dantzak hasi ziren. Heletarrek abesti bat hasi eta zamudioztarrek amaitu. Ondoren zamudioztarrek amaitu. Ondoren, zamudioztarrek doinu eman orduko heletarrak abesten hasi ziren. Honela, goizaldeko ordu txikiak arte. Pozik zeuden

zamudioztarrak Heletan sikieran euskeraz egiten entzuten zela eta.

Hurrengo goizean non aurkitu zuten autobusa pegatinaz beterik, "Heletan euskeraz" jartzen zuten pegatinok. Hau ikusita ere pozik zamudioztarrak Iparraldean ere kontzientzia nazionala hedatzen ari zela eta. Baten batek, gertatutakoa, aurreko gau hartan zamudioztar askok espainera hutsean ibili izan zirelako ez ote zen galdetzen zuen.

Goiz haretan Zuberoako bihotzean dagoen Altzürüku herrira heldu zen Zamudioko espedizioa. Maskarada eguna zen eta lilurata gelditu ziren manexak... zelako dantzak, nolako giroa, dena kolore, dena algar...

Hilabete batzuk beranduago iparraldekoak izan ziren bidaiari, Zamudiora heldu zirenean berehala ohartu ziren bertoko mintzaira nagusia espainera zela, nola izan zitekeen hori? Nola Euskal Herrian espainera? Egunak aurrera egin ahala ulertu zuten hegoaldekoek, jakin zuten iparraldekoek, elkar ulertzeko bide bat baino ez zegoela eta Euskal Herrian Euskeraz lelotzat hartutako milaka pegatina egin ostean, euskaldunek euren artean euskeraz berba egingo zutela erabaki zuten.

Gaur egun Euskal Herri euskaldun honek orduko zamudioztar, heletar eta altzürütarrei asko zor die. Gora ba eurak!

Iñaki Astorkitza

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



HARAGITEGIA ALBERTO

Txorierri etorbidea, 5
Tlf.: 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)



HARATEGIA J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela

Iturrikotxe, 7
Tlfnoa: 94 455 89 41
LARRABETZU



HOTEL JATE TXEKA
BATEK + LAOTE

Oibar Gailgoanarritu
Arriaga sarea, 62
48170 ZAMUDIO - (BIZKAYA)
Telefonoa: 94 451 41 17
Faxa: 94 457 17 18
E-mail: hotel_jate-txe@jate-txe.es

MARMOLGINTZA GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nahka
48160 DERIO (Bizkain)
Tlfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



Barbería Balla go Biciara

- Tratamendu estetikak
- Depilazioa:
- Llotan
- Beroa
- Elektrikoa
- Laser bidez
- Kutimeroak
- Ostospina
- Mikroinjekzioak

Gutako kalea, 2 (Sarrera Trafikotik) DERIO
Tlfnoa.: 94 454 13 64 - Mobila: 679 636 995

Zorionak Larrabetzuko eskolari!

Ikasturte honetan gure eskolak 25 urte bete ditu. Denbora oso arin doanez kurtso amaierako atarian gaude eta ikasturteari agur esan aurretik ZORIONAK opa nahi dizkiogu. Hainbat sekretu, oroimen eta gertakizun gordetzen dituzte bertako hormak, asko dira-eta bertako geletatik pasatako herritarrek, langileak, gurasoak...Guztion artean eta jaigiroan ospatzeko gonbidapena luzatzen dizuegu herritar guztioi, ekainaren 14an eta 15ean egingo diren ekintzetan parte hartuz.



Egitaraua

Ekainak 14, larunbata:

9:30etan Diana
10:00etan Esku pilota
11:00etan Euskal dantzak
12:00etan Umeen jolasak
14:30etan Bazkaria
15:00etan Umeen jolasak eta tailerrak
17:00etan "Potxin eta Patxin" pailazoaren ekitaldia
Egunean zehar umeen margolanen erakusketak eta eskolako argazkien erakusketa egongo dira (25 urteotako argazki bilduma).

Ekainak 15, igandea:

9:30etan: Mendi irteera
Txinpasmentira igoko gara eta bertan oroigarri bat ipini ondoren txitxiburduntziarekin emango zaio agurra aurtengo festari.

Larrabetzuko guraso elkarte

Egunkariaren aldeko jaialdia Derion

Maiatzaren 10ean egitekoa bazen ere, azkenean data aldatu eta hilaren 31n egingo da Egunkariaren aldeko jaialdia, Derioko kiroldegi ondoko plazan. Egun horretarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte antolatzaileek, hau da, Txorierriko euskara elkarte guztiek eta AEK-k. Horrela, bada, arrastiko 5etan kirol ekitaldiaren bat egongo da eta 6 eta erdietan kalejira herrian zehar. Ordu erdi geroago, Txorierriko dantza taldeek erreleboa hartu eta alardea eskainiko dute. Gainera,

Egunkaria-ko langileen proiektu berria aurkeztuko da saioaren barruan. Aipatu beharra dago, besteak beste, kamisetak, pinak eta eranskailuak salduko direla txosnetan.

Beste alde batetik, Sei urte (Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi duen taldea), Gatibu eta Urgabe musika taldeek joko dute gaueko 11etatik aurrera. Jaialdian batzen den dirua euskarazko egunkari berriaren proiekturako izango da.

Labayru Hiztegia kaleratu barri dabe

Hilaren 6an Labayru Ikastegiak argitaratutako hiztegi barria aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Jauregian. Bizkaieraren eredu idatzian lexiko arloan egoan hutsunea betetzeko asmoz atondu dabe hiztegia. Era berean, gramatika, morfologia eta joskeran egindako lanen jarraipena da.

Lanak ondare idatzia jaso gura badau ere, ahozko ondareari aparteko garrantzia emon jako, beste inon aurkitzen ez diran formei lekua eginez. Gainera, gaurko euskeraren egoerari erantzuna eman nahi deus.

Aurkeztutako hiztegia Euskera-Gaztelarako alea da eta Gaztelera-Euskara alea urte amaieran kaleratzeko asmoa dabe.

Jubilatuaren eguna Loian

Orain dela 12 urte hasi eta ohitura ez dute galdu oraindik. Izan ere, Loiko jubilatuek euren eguna ospatzeko dute ekainaren 15ean. Horrela, hainbat ekintza antolatu dituzte jai-egun honetarako. Eguerdiko 12etan meza izango dute. Ostean, luntxa eskainiko zaie elkartearen kide guztiei. Gainera, Xabier Amuriza eta Mikel Mendizabal bertsolarien bertso-saioa izango dute.

Beste alde batetik, bazkaria egingo dute Aurregoiti jatetxean eguerdiko 2:30etan. Bapo bazkaldu ondoren, trikitilari eta bertsolarien eskutik jarraituko du jaiak.

Euskal dantza ikastaroa Larrabetzun


Larrabetzuko Arrekikili elkartekook jakinarazi nahi dizue Euskal dantza ikastaroaren eguna aldatu egin dela, parte hartzaile guztien oneritziz, eta beraz ikastaroa asteazkenero izan beharrean, asteartero izango da Kultur Etxean 7etatik 8,30etara.

Arrekikili Euskara Elkarte



Zerurena Jatetxea

Errementari Kalea, 22
Tfn.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)



BAR TXIKI

Lehendakari Leizola, 8
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Tel. 94 452 04 68

Restaurante

SAN ISIDRO

COMPLEJO SAN ISIDRO DE LOS BAÑOS DE SAN ISIDRO

ESKUNTZAK, BATAIOAK, JAIUNARTZEAK

Teléfono 94 451 07 08 Fax 94 451 11 18

Miraflores de la Sierra, s/n 48100 BORDO

Reserva de platos
- Lantzen artetik
- Gorteko prestatutik
- Sarrak/Alabak 700 s/d
- Sarrak/Alabak 700 s/d



GAMINIZ

RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Teknologikoan Tel. 94 431 70 26
Haztegia 212 Email: gaminiz@euskalnet.net
48101 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizrestaurant.com

Virginia Berasategui munduko txapeldun

Maiatzaren 11n distantzia haundiko Munduko triatloi txapelketa izan zen Eivissan eta Virginiak urrezko domina lortu zuen bertan. Triatloiaren hiru probak, distantzia haundian, hurrengook ziren: 4 km igerian, 120 bizikletaz eta 30 korrika. Sondikarra hasieratik nagusitu zen eta amaitzerakoan 6 ordu, 19 minutu eta 20 segundoko marka egin zuen. "Oso pozik nago, aspaldiko ametsa bete dut eta" esan digu triatloilariak.



Dagoeneko entrenamenduekin hasi da berriz. Izan ere, Atenaseko olinpiadetara joatea gustatuko litzaioke eta, horretarako, hainbat puntu lortu beharko ditu beste lehiaketa batzutan parte hartuz.

Eivissan lortutako garaipena ospatzeko eta, aldi berean, bere kirol-ibilbidearengatik esker ona emateko ongiatorri ofiziala antolatu zuen Sondikako Udalak hilaren 16an. Aikor! aldizkaritik ere gure zorionik berorena Virginiarentzat.

Derio preferentera

Deriokoak be ospakizunetan dabiz, Zaratamori 3-1 irabazi ondoren, datorren denboraldian lehenengo aldiz preferente mailan jokatzeko txartela eskuratu eben eta. Gainera, oraindik txapeldun be izan daitezke, izan be, liga amaitzeko jardunaldi bi falta dira. Irabazitako partidu haren garrantzia ikusita, klubekoek kartelak ipini ebezan herrian, eta derioztarrek erantzun ezin hobea emon eben, bai ekipoa animatzeko, bai gero ospatzeko be. ZORIONAK!

Lezama bigarren mailara

Txanpon guztiek aurpegi bi daukiez eta Lezamako futbol taldeari aurtien mailaz jaistea tokatu jako. Beste batzuk ospakizunetan dabil-tzan artean, lezamarrek liga amaitu aurretik jakin dabe datorren urtean erregionaleko bigarren mailan jokatu behar izango dabela. Hau kirola baino ez da, batzutan irabazi egiten da eta beste batzutan galdu. ANIMO!

Zamudio Txapelduna

Liga bukatzeko lau partidu falta zirenean, Zamudiok ohorezko mailako txapelketa lortu eban, Getxori 4-1 irabazita. Ospatu eben, bai, jokalariek eta zaletuek barriz be hirugarren mailan jokatzeko aukera emongo deusien txapelketa hau. Futbol zelaian, ohiko "estropadak" eta "meleak", entrena-tzailea aidean, txanpaina zenbat-gura, bolanderak eta, azkenean, presidentea eta direktiboak dutxara.

Gero kotxe karabanan eta bozina-hotsean ospakizuna herrira ekarri eben. Denboraldi osoan aurretik ibili ondoren, talde honek kalitategia erakutsi dau eta merezi eban saria.



ZORIONAK!

Gestión Zamudio
Abokatuarieta Fisikala
Jon Vázquez García
ABOKADUA, LEZARUJALABIA
Gurebide, 7 - Lezama
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefono: 94 432 1111 Fax: 94 432 1112
E-mail: gzt@zamudio.net

ERREKA
ETXEA
Egunkari menua, atzeratutako menu berezia, kortsu, ekipaio baxkariak, jantziak, baxkari baxkariak
Antzara, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Telefono: 94 432 14 19
Fax: 94 432 26 29

LEJARRENE JATETXEA
GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

HIRUKOTE ERREMENTERIA
Pablo Lezkano
-Metalezko eralkuntzak
ateak, eskailorak, tarteko oinak,
burdin hesiak, balkoi korritunak,
eskudelek eta giradun ateak
-Forja artistikoa
altzariek, aheburukoak, mahalak,
malkiak, lanperak, apurategiak...
-Auzokideen eta industriren
komunitateetako mantentze lanak
-Altzairu herdoilgaitz eta titaniozko
lanak

CAFETERIA iAZi
Eguneko menua eta
Menu berezia
JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

Umeentzako udalekua Derion

Egun guztietan hainbat ekintza egingo dira, esate baterako, jolasak, irteerak eta umorezko rallya. Interesatuta daudenek maiatzaren 23ra arteko epea dute izena emateko.

Santo Tomas jaiak

12:00 Auzoko hildakoen oroimenez Meza Santua ermitan.

Amaiketako
Abierto los 7 días de la semana

- Egunko Menuak
- Kuzinatzeak
- Ollaakoa Erreta
- Karta Zabala

Unito Kalea, 1 Pº - DORIO
Tfno. 944 510 106

Euskal astea Zamudion

Lagatzuk IV. Euskal Astea antolatu dau, Zamudioko Udalaren babesagaz. Maiatzaren 29tik ekainaren 2ra bitartean, beraz, eskaintza zabala izango da, ia arlo guztiak jorratuko dira eta. Azpimarratu beharra dago Pantxoa eta Peioren kantaldia. Urte batzuk kantau barik egon eta gero, atara barri daben diskoko kantak aurkeztuko dabez, baita lehengoak gogoratu be. Kantaldia kiroldegian izango da, maiatzaren 31n, zapatuz, gaueko 10etan (sarrerak 944520204 telefonoan erreserbatu leikez). Egun berean, umeek "Bentri-Magik" ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dabe Ramón Irizar sabel-hiztunaren eta Marsel magoaren eskutik.

Dana dala, euskal asteari eguenean emongo jako hasiera, hain zuzen be Xabier Goirigolzarri Aztiko zuzendariak eskainiko dabuen Prestige- Nuncia Más hitzaldiagaz. Kabaretak be lekua izango dau aste honetan eta Neskapolitan kafe antzerkia eskainiko da barikuan, dorretxean.

Ekainaren 1ean, urtero lez, Zamudio ezagutu mendi ibilaldia egingo da eta eguerdian herriko txakolinen eta emu okelaren dastatzea. Aurten, tailerretan parte hartzen daben herritarren lanen erakusketa be egingo da. Bertsozaleek, barriz, Xabier Amuriza eta Jon Maiaren Mende baten aldarriak izeneko saioa entzuteko aukera izango dabe arrastian.

Asteari amaiera emoteko, Euskera, euskaltzaleasuna... jomugan izenburupean, Martxelo Otamendik eta Erramun Osak berbaldi bat egingo dabe berba gure hizkuntzak jasotako erasoei eta emon beharreko erantzunei buruz.

Euskal Astea

→ ZAMUDION ←

MAIATZAK 29. Eguna
20.00 ETAN PRESTIGE-NUNCA MÁIS. XABIER GOIRIGOLZARRI
HITZALDIA - DORRETHEAN

MAIATZAK 30. Barikua
22.30 ETAN HARETA KABARETA. NESKAPOLITAN
KAFE ANTZERKIA - DORRETHEAN (DOAN)

MAIATZAK 31. Zapatua
12.30 EGIN BENTRI - MAGIK MAGA ETA BENTLOSA - DORRETHEAN (DOAN)
22.00 ETAN PANTXOA TA PEIO. HANTAU DA - KIROLDEGIAN
KABARETA EROKILAKATIA DA KURU ERASERAKI GOTOIA 944 520 204 TELEFONAN
DERIO EGUINARRAREN ALDEKO EGUNA

EHAIKAK 1. Domeka
09.00 ETAN U MIKELI DULALDIA. ZAMUDIO EZAGUTU
12.30 ETAN HERRIOKOKO TXAKOLINEN ETA EMU OKELAREN DASTATzea
HERRIOKOKO ARTISAUEN LANEN ERAKUSKETA
BERTSOZALARIEN ETA TRAKILARIEN
PLAZAN
19.30 ETAN XABIER AMURIZA / JON MAIAREN MENDE BATEN ALDARRIAK.
DORRETHEAN (DOAN)

EHAIKAK 2. Astelehena
20.00 ETAN EUSKERA, EUSKALTZALEASUNA... JOMUGAN.
MARTXELO OTAMENDIK, ERAMUN OSA, MAIARI NGURUA - DORRETHEAN

...euskereak egiten gaitu euskaldun...

Sabin Askolizaga
Aspizko Agurak
Mintz
609 47 57 46
Tlf. 94 4531807
Fax 94 4531027
Mintz, 6. etaba
48150 Sestika-Bizkaia

CARROCERIAS TXORIERRI
R-M
PINTURA
José Antonio Sanz
TXAPA ETA LABE-PINTURA
Tomelarragotzi poligonoa
Vial sur C-15, Nave B8-1
48160 Zamudio (Bizkaia)
Telefonos: 94 457 79 00

GARRAIOLARIA
Miguel Angel Lokuc
ANDRA MARI, 19
LARRABETZU
Tfno.: 94 455 80 20

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitez Trippyra, Derio.
Behoko Kalea Bajo
DERIO

UMEENTZAKO MODA Tximeleta
Lernizako Arbola, 8
Telefonos: 94 454 14 35
Fax: 94 454 38 26
48160 Zamudio (Bizkaia)

Ganix
GHEITAKOAK - GORRABOIAK
Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrera Goiko Kaleatik)
Tfno.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

ARTIZAR
MARKOA JATZEKO TAILERRA
Jardio Auzak, 3
Tlf. 94 453 01 50
48150 Sestika-Bizkaia

LEIRE BEGOÑA
ILEAPAINDEGIA
UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA
MUNCIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL: 94 454 26 32 DERIO

CLINICA DENTAL ZANDUZ
HIZTETZAILAK
- Odontologia orokorra
- Ortodontia (umaak eta helduek)
- Periodontia
- Kirurgia. Hartz harkuntzakako
plasma berezia
- Hartz ordezkatzea
(zurketa, piercing...)
- Hartz jarriren eta berriren
Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo
Txakolineria 7. etaba (sarrera 2. etaba)
Tfno./Fax: 94 454 01 01 - e-mail: zanduz@zanduz.net - 48150 DERIO (Bizkaia)

“Txorierritik bertatik badago alkarlan sendo bat egiterik”

Testua: Fernando Larrondo

Deustuko Unibertsitateko ekonomia irakasle honek makina bat urte daroa lanean Alren bitartez munduko injustiziei aurre egiteko. Bere eritxiz, pertsona askok giza eskubideen urraketaen aurka daukan konpromiso sendoari bideak emon behar jakoz; arrazakeriak, etorkinen eskubideen zapalkuntzak, gobernu demokrata askok egiten dituen gehiegikeriak, emakumeen aurkako neurri bako indarkeriak... Gure eskuetan dago erantzuna, teknologia barriei esker inoiz baino bideragarrigoa dan erantzuna. Aitziberrek dinoanez, lankidetza eta partehartze hau sustatzeko hainbat ekimen abiatzear dagoz, eta, horixe da, hain zuzen be, beragaz egindako alkarrizketan azaltzen deuskuna.

Zer esan ahal deuskuzu Alk egiten dauen beharrari buruz?

Hainbat bazkide gara Bizkaian. Txorierrin be badagoz batzuk. Gure egiteko nagusia berba gitxitan batzen da: munduan gertatzen diran giza eskubideen aurkako edozelango urraketa eta erasoei aurre egitea. Honetarako bide asko dagoz gaur egun. Ez dogu pentsatu behar beti urruneko arazoak diranik eta aurre egiteko biderik ez dogunik. Gure inguruan, Euskal Herrian gertatzen dira sarri askotan eraso horreek, paraje daukaguz, eta erantzun egokia emoteko behar dan moduan antolatu baino ez dago.

Esaterako, Nigeriako Amina Lawalen kasuan, bere heriotza-zigorra atzeratzea lortu zan Alren presioari esker. Orain zigor hori ezabatzeko eta indultua lortzeko presioa areagotzen gabilz honen aldeko milioika atxikimenduei esker.

Zelango tresnak daukaguz txorierritarok zuekaz alkarlanean aritzeko?

Bide asko dagoz. Alde batetik, hile birik behin Alren aldizkarian giza eskubideen aurkako erasoen hiru kasu plazaratzen dira, nabarmenagoak edo ezezagunagoak, eta jenteari kasu horreen ganeko argibideak emoten jakoz, zer gertatu dan, non, erantzuteko tresnak eta helbideak. Gutun bat idazten da ahalik eta sinadura eta atxikimendu gehien jasotzeko. Bestalde, Internet daukagu. Hori dogu, arlo honetan be, tresnarik baliagarriena. Premia berezia daukien gertaerez www.a-i.es helbidean jabetu ahal gara, eta bertoko “premiazko ekintzak” atalean gure kexak eta azalpenak bideratzeko aukerea dogu. Massive

“Internet tresna baliagarria dogu giza eskubideen aurkako erasoei aurre egiteko”

attack honen bitartez injustizia horreen aurka lortutako presioak bere ondorioak eukiten ditu, zorionez. Bide horri jarraituta, jende askok etxetik emoten dau laguntasuna, kexak helbide zehatz batzuetara igo-rriz, euren kabuz. Baina hemen arazoak egoten dira, lagundu gura bai, baina orde- nagailurik edo Interneten sarbiderik ez daukien lagunakaz. Hau gaingitu gurean, Derion 60 laguneko talde bat sortu zan. Giza eskubideen kontrako ekintzei aurre egiteko protesta-gutun bat prestatzen zan, lagunon atxikimendua, sinadura, NAN eta beste datu batzuk jasoz. Gero, ordenagai-lua eta Interneteko sarbidea eukienak arduratzen ziran kexa-gutun horreek helbi- de berezi batzuetara bialtzeaz.

Derioko zibertokiaren bitartez be eki- men berezi bat abiarazi genduan. Aste- an hiruzpalau ordu emoten genduzan pre- miazko kasuei erantzuteko erabilgarriak ziran web-orri berezi batzuk aztertzen. Baina ziberra itxi zanean, akabo!

Internet dela eta, zeozer prestatzen zabilzela entzun dot.

Gaur egun, ekimen barri bateri heldu deusagu. Derioko KZ Gunean, KZ Guneen Sareko arduradunagaz adostuta, ikastaro berezi bat antolatuko da. Internet zelan erabili Algaz bat lan egiteko, giza




Helbide interesgarriak

www.euskalnet.net/aibilbao (Bilboko)
e-mail: aibilbao@euskalnet.net
www.PonteensuPiel.org
(arrazakeriaren aurka lan egiteko web orria)

eskubideen arloan dagozan injustiziei erantzuteko daukaguzan tresnak erabil- tzen ikasteko. Hainbat lagunek esan deus- te interesatuta dagozala. Dana dala, AIKOR aldizkariaren irakurleren batek ikastaro honetan parte hartzeko interesik eukiko baleu, ondorengo hau da hartu- emonetan jartzeko telefonoa: 94.453.10.44. Hasiera data oraindino zehazteko dago, baina talde polit bat oso- tuten badogu, askoz hoba!

Benito Lertxundi, kantaria:



"Zergatik utzi behar diot kantatzeari?"

Bi urte ziren Benito Lertxundik Larrabetzun azkene-ko kontzertua eman zuenetik. Orduan Hori Bai gazte-txekoek ekarri zuten, urtero gabonetan antolatzen dituzten ekitaldien pentsura.

Soinu probak egiten ari zela eskatu genion Benitori elkarrizketa egiteko eta adeitasun osoz adierazi zigun amaitu arte itxaroteko. Izan ere, Benito teknikari lane-tan zebilen, zuzeneko emanaldietan laguntzen duten gainontzeko 8 taldekideen musika tresna guztiek behar bezalako soinua izango zutela ziurtatu gurean.

Atzo Usurbilen izan zinen, Jexux Artzeren omenezko hamabostaldiko ekitaldien egitarauan. Ez dok hamahiru-ren erakusketa dago bertan, Korrika 13ak ere erreferentzia zuzena egin berri dio... Zelan ikusten duzu zuk ordu-ko hura?

Oso urrutiko gauza bezala. Gaur egun euskal kantagintza normalizatua dago, baina orduan hutsetik hastea izan zen eta esango nuke gaur egungo kantagintzaren oinarriak eta zutabeak finkatu genituela. Talde bitxia izan zen, indar handikoa eta guretzako bataio modukoa izan zen. Eztanda, iraultza moduko bat izan zen.

Duela bi urte, frontoi honetan bertan, Nere Ekialdean zure azkeneko diskoak-oren kantak aurreratu zenizkigun. Zelako harrera izan du diskoak?

Ikaragarria, oso harrera ona. Donostia edo Bilbo lako plaza garrantzitsuetan sarrerak egunak aurretik saldu genituen, ni sinistu ezinik egon nintzen, 3 hilabeteen 25 bat emanaldi eman genituen, guztietan entzule piloa... Euskal Herritik kanpo ere harrera itzela izan dugu... Horrez gain, taldekideok ere sano sartuta egon gara emanaldietan, oso natural aritu gara, gustura.

Diskoan Fernando Pessoaen hitzetan oinarritutako 5 kantu sartu dituzu, libu-ruxkan bere Un Corazon de nadie libu-rua irakurtzen agertzen zara... zergatik Pessoa?

Maite dudalako. Nik maite dut Pessoa. Niretzat ez da ohiko olerkaria; heldutasun handikoa, pertzepzio ikaragarria zuen bizi-tza, gizakia eta giza-harremanak irakurtze-ko. Niri oso hurbilekoa egiten zait, erabat identifikatzen naiz harekin eta erreferen-tzia da niretzat.

Nork egin du Pessoaen testuen itzul-pen lana?

Neronek egin nuen, bere poemak ira-kurtzean sentitzen dudana zirrara transmiti-tu nahi nuelako.

Eta itsasoa

Bai, hori esan didate askok, orain arte, Oriokoa izaki, itsasoaren erreferentzia gutxi nituela, baina oraingoan diskoak itsa-soaren usaina duela... Ez da nahita egin-dako zer bait, horrela irten da, berez.

35 urte dira lehen disko luzea atera zenuenetik, Zergatik utzi kantatzeari? kanta, Jexux Artzeri Zuk dakizun hura kanta, Pessoaen hitzak... Atzera begi-rakoa da disko hau, orain arte egin duzunaren hausnarketa?

Ez, nik ez ditut diskoak kontzeptualki lantzen, ildo bat hartu eta hori jorratzen. Niretzat kanta bakoitza abentura da, natu-ral sortzen dena. Nik senari, intuizioari egi-ten diot kasu. Diskoak eragin horrekin sortutako kanta multzoez osatzen ditut. Arrazoi beragatik miresten dut Pete Seeger kantaria, 83 urterekin oraindik

kantuan ari dena, bere omenez sartu nuen Zergatik utzi kantatzeari?

Eta amaitzeko, epe laburrerako proiekturik baduzu?

Oraingoan Nere Ekialdean aurkezten jarraituko dugu eta lehen esan dudana lez, kantuak natural irten ahala beste diskoren bat ere osatzeko modua badugu, egingo dugu.

Naturaltasunez hasi genuen elkarrizke-ta eta naturaltasunez amaitu. Benetan gozagarria izan zen Benitorekin hitz egitea, 35 urtetik gora kantuan dabilen koblaka-riak berba egitean duen pasio eta indarrak harritzea. Gurako genuke gazte askok Benitoren apaltasuna, gizatasuna eta pro-fesionaltasuna balute. Guri irakaspen poli-ta eman zigun.

Emanaldiak bi ordu eta erdi iraun zuen eta batez ere Nere Ekialdean azken disko-ko kantak aurkeztu zituen, tartean jendea-ren bat-bateko txalo zaparrada eragin zuen Baldorba (Hitaz oroit), baina aspaldi-koak diren eta entzuleak gustura kantatu zituen Bizkaia maite, Nere herriko neska-txa maite, Zenbat gera eta Erribera ere eskaini zituen.

Testua eta argazkia: Bihotz Bakartien Klubeko kidea

Trikitixa, gure bizi poza!


Guztiok dakigu zer den trikitixa edo soinu txiki bat, Txorierrin txoriez gain, hola-ko instrumentu asko daudelako. Eskusoinu hau diatonikoa da, hau da, ixtean eta zabaltzean soinu desberdina egiten duena. Eskuman 23 botoi ditu. Hauek dira melodia egiten dutenak. Ezkerrean 12 botoi ditu (baxuak), zeintzuk melodia aberastu eta erritmoa markatzen duten. Gehienok pentsatuko duzue bertan sortutako instrumentua dela, baina 100 urte eskas daramatza gure artean. Trikitixaren jatorriari buruzko bi hipotesi daude. Alde batetik, Italiarrek ekarri zutela Gipuzkoara eta, bestetik, bizkaitar arrantzaleek ekarri zutela. Hara akordeoi diatoniko honi buruzko zenbait gauza jakingarri:

Nire ustez, instrumentu honek bi iraultza edo berrikuntza garrantzitsu jasan ditu bere bilakaeran zehar. Lehenengoa, Elgetak gauzatu zuen. Honek, batetik, baxuetako erritmoak berritu zituen erritmo desberdinak erabiliz; bestetik, botoi berriak jarri zituen soinuari, erritmo berriak ere jorratuz, mazurkak adibidez. Azkeneko iraultzan pertsonaia desberdinak agertzen dira, haien artean hauek ditugu esanguratsuenak: Joseba Tapia, Imuntzo eta Kepa Junkera. Hauek musika mota eta akorde desberdinak erabili zituzten. Ondorioz, kritika asko jasan zuten beren garaian. Hala ere, ate asko zabaldu zizkioten soinu txikiari.

Berez, soinuaz molde desberdinak jorra daitezke. Alde batetik, molde tradizionala, hau da, betidanik hemen jo dena: zortzikoak, trikitixa, porrusalda, martxea, fandangoa, arin-arina, etab. Bestetik molde berriak, kultura eta etnia desberdinen topaketan ondoriozkoak, adibidez: zelta, hip-hop, pop, jazz, eta abar.

Trikitixa irakasteko hiru modu daude nagusiki. Alde batetik aurrez-aurre, hots, ikaslea eta irakaslea bata bestearen aurrean jartzen dira eta ikasleak irakasleak egindakoa errepikatzen du, abestiaren zati guztiak buruan grabatuz. Bestetik, zenbakien irakasbidea dago. Honek egiten duena zera da, botoi bakoitzari zenbaki bat ematen dio eta partituran nota bakoitzari botoiaren zenbakia jartzen dio. Azkenik, guztiok ezagutzen duguna dago, solfeo bidezko metodoa, hauxe izanik metodorik eraginkorrena.

Trikitixaren etorkizuna momentuz ona da, ez dugu Zamudioko harrobia ikustea besterik. Azken urteetan "Boom" bat eman da, hau da, modan jarri da soinua eta ikasle asko hasi dira ikasten. Badirudi, momentuz horrela jarraituko duela. Hala ere noizbait bukatuko da aro edo denboraldi hau. Beherantz doana erromeriak dira, geroz eta gutxiago egiten baitira. Lehen igandero biltzen zen herriko jendea



Trikitixak 100 urte eskas daramatza gure artean

dantzan egiteko. Gaur egun, ordea, hori aldatu egin da eta gazteak diskoteketara doaz gehienbat. Beraz, badakizue, trikitixa ikasten hasi nahi baduzue, lbalaldiko lemak esaten zuen moduan, ERDUZE GEUGAZ!

Testua eta argakia: Gaizka Peñafiel Dañobeitia

LIBRERIA SONDIA
LIBURUDENDA

ARTE IDIERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, kuadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
puzpuzgintza eta eskularrak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIA (Bizkaia)

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Carlos Kales, 5
Telefono / Fax: 94 462 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tallera kafea. 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 75

CONDAT
LUBRIFICANTS

Tfnoa: 619 415 585
J. A. Zabala

- Taladrinak
- Koipeak
- Deformazio olioak
- Mantenimenduzko olioak

Xabier Luengas, ✱ "kick boxing" irakaslea

"Kirol honetan aritzeko, adimena ere oso beharrezkoa da"

Gazte-gazterik karate praktikatzen hasi eta kick boxing munduan sartu zen 16 urte zituela. Hasieratik hainbat lehiaketatan parte hartu izana, 2001. urtean Euskadiko urre eta Espainiako zilarrezko dominak lortu zituen, esate baterako. Gainera, nazional zein erregionaleko arbitroa ere bada eta Euskadiko Ordezkaritzak gerriko beltza eman zion aspaldian. Derioko Doyan taldea desagertu zenetik, bere kabuz egiten ditu entrenamenduak Sondikako gazteak. Egun, 23 urte ditu eta kick boxing-a irakasten du herriko kiroldegian.

Zertan datza kick boxing-a?

Karatearen ostikadak eta boxeoaren teknika batzen ditu. Gorputz osoa lantzen denez, gutxieneko ezaugarri batzuk beharrezkoak dira: muskulatura, elastikotasuna, erresistentzia... Eta adimena ere bai! Hau jokia da eta irabazten duena ez da indartsuena izaten, baizik eta ondoen jokatzeko duena. Kontrarioaren asmoei aurretik igartzeko gauza izan behar duzu. Jendeak pentsa dezake borroka hutsa dela, baina arau batzuk bete behar dira eta haiek ondoen betetzen dituenak irabazten du.

Zeintzuk dira arau horiek?

Gerri gainetik jo behar da, eta, aukaria behera botatzeko, baita orkatilatik behera ere.

Eta zenbat modalitate dago?

Kontaktuaren arabera lau modalitate ditugu. Formas: teknika erakustea da eta

ez dago kontakturik. Semi contact: lehiakide batek puntu bat lortzen duenean borroka gelditu eta berriro hasten da. Light contact: kontaktu kontrolatua da eta kolpe bateko KOk ez du balio. Azkenik, Full contact dugu; hemen kontaktua osoa da. Ni light contact-ean aritzen naiz lehiaketetan, baina entrenamendua egiteko, edozein modalitatetan.

Sarritan berotu zaituzte?

Noizean behin. Kirol honetan aritzen garenok kolpe handiren bat hartzen dugu inoiz.

Nolako ekipamendua jantzi behar da kick boxing-a praktikatzeko?


Botinak, zango-babesak, bendak, eskularruak, hortz zein barrabil-babeskia eta kasboa. Neskek titi-babesa ere jantzi behar dute.

Kirol bortitza dela uste du batek baino gehiagok...

Hori pertsonaren arabera izaten da. Nik 1-0 irabazi nahiago dut. Izan ere, 5-4 irabazteak kolpe asko jaso dituzula adierazten du. Teknikan dago koska, eta ez indarkerian. Lehiakide txarrak izanez gero, kolpe gehiegi hartuko ditu galtzaileak, baina txapelduna lehiakide ona bada, ez.

Gimnasioan ikasitakoa praktikara eramaten da kalean?

Egoera larriren bati aurre egiteko segurtasuna eman ahal dizu, baina nik ez dut erabiltzen kick boxing-a neure burua



defendatzeko edo borroka egiteko, baizik eta kirola egiteko.

Zeintzuk dira zure etorkizunerako planak?

Kirol-Kontseilu Gorenaren gerriko beltza lortzen saiatuko naiz ekainean.

Sasoi onean dago kirol hau?

Ez, azken bolada honetan indarra galdu du. Nik zaletasuntzat daukat. Marka laguntzaileak egon arren, zaila da kick boxing-etik bizi izaten. Monitore gisa egin ahal duzu aurrera...

Eta horretan diharduzu. Zelan eskola ematen?

Jendea boladaka etortzen da ikastaroa. Hala ere, lau ikaslek ez dute inoiz huts egiten. Haietarik bi neskak dira eta haiei irakastea atseginagoa dela esango nuke. Izan ere, mutilok, orokorrean, nahiko burugorrrak gara eta neskek lehenago hartzen dute teknika. Ikastaroko onena neska bat da.

Beste alde batetik, adin guztietako jendeak egin dezake kick boxing-a. Izan ere, kirol honetan jardunda primeran pasatzeaz gainera, hainbat arlo lantzen dira: koordinazioa, erreflexuak, sasoia...



Xabier Luengas kick boxing-a irakasten du Sondikako kiroldegian.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



h r r r k n,
h r r r ntz t.

G zt k n

r st kntz nt r l r m tuz.
L n m r k t u n s r r r u n s u s t t u z, t
h r h n k t s u n z t u z.
G z t t u z t k l x z t z s k u r r r
z t k s k u r r n l l n n z.

L n l k n

E n l u u n t r n k r r z t k
s k u r r l r k t u z.
E r r l k n t r t u r u t u t r k k k
s u s t t u z r n n z.
L n l m m r z t u t l r u s t r k
z t z r n l.

ut t m n z r k n

Eusk I H r r ntz t s r r u l t k r r
t l r t z r n l.
Eusk I H r r ut t m n z
s k u r r n s u k t u t l k,
N z t k k m u n t k k n r t u r k z
s k u r r n l.
Eusk I H r r n n n, Eusk I H m n
t r k n s t u z l r k u,
t t t u r m n m n l t k r n,
s z l n t k n r k n n n u r n t
t t m n t. E s t t u k n z r n n
t u n h r m n n n n n k z k
s k u r r n l.

H r r r k n

l l n z s u n r s t t u z.
Eusk I t z k r r n z k t
m k t k m t k k n r m s r k n.
z t r t z k k n z k t t
l k r z r n l.
l n t z u k t z r n z s k u r k
z n z m s t z r n l l n n z.

m n t



eusk
lk rt sun
www.euskaltzaindia.net

Pazko jaiak Zamudion

Uda begi aurrean daukagu eta gorputza jaietara joateko gogoarekin ere bai. Ba, ondo, Zamudion aukera izango dugu gutxi barri. Izan ere, Pazko jaiak ekainaren 6an hasiko dira, eta lau egunean hainbat ekitalditan hartu ahal izango dugu parte.

Horrela, txupina bota ondoren, kalejira egingo da herritik, eta, gauean, Urgabe eta Kronos taldeen kontzertuak ikusi

ahalko ditugu. Larunbata ere zereginetik itota etorriko zaigu: sukalki eguna, umeentzako jokoak, triki-poteoa, herri bazkaria, Ken Zazpi, Sorkun eta Trikitrake taldeen kontzertuak... Goiz altxatuz gero, pilota partiduak ikusteko aukera izango dugu igandean. Horretaz gain, Zugan taldea arituko da enparantzan. Astelehenean jaietara amaiera emango zaie. Mezaren ondoren, luntx bat izango dute herriko jubilatu guztiek. On egin dagiela!



Aurten ere puzgarriak izango dituzte Zamudioko umeek Pazko jaietan.

Egitaraua

Ekainak 6, ostirala

19.30 Jaien hasiera, karameluen jaurtiketa
19.35 Kalejira
19.30 Play back txapelketa
23.00 Gau dantza Urgabe eta Kronos taldeekin.

Ekainak 7, larunbata

10.30 Kalejira
Sukalki eguna Bidekoetxe parkean
11.15 Umeentzako jokoak, puzgarriak eta marrazki txapelketa
13.00 Triki-poteoa
14.00 Sukalki dastatzea
14.30 Herri bazkaria
17.00 Gorritiren ponyak
18.30 Sari banaketa
20.30 Abesbatzak Zamudioko elizan
- Los templarios (Castro Urdiales)
- Zamudioko Kamara Korala (Zamudio)
- Coral San Luis Beltran (Zamudio)
22.00 Dantza egiteko orkestra
23.30 Gau dantza, Ken Zazpi, Sorkun eta Trikitrake taldeekin.

Ekainak 8, igandea

10.30 Kalejira
11.00 Meza Nagusia
11.30 Pilota partiduak
13.00 Dantza Zamudioko Hiru Bat taldearekin
16.00 Mus eta briska txapelketa
19.00 Zugan taldea Zamudioko plazan

Ekainak 9, Astelehena

11.00 Meza Nagusia. Ostein, luntxa
Zamudioko jubilatu guztientzat



TOLDOS ZAMUDIO S.L.


- Toldoak saldu eta alokatzea
- Toldoak konpondu eta ipintzea
- Eguzki toldoen mantentze lanak

Eskatu aurrekontu
konpromiso barik

Pol. Torrelarragoiti P-6 A-4
48170 Zamudio (Bizkaya)
Telf. 94 452 35 85

“Euskaldunak dakitenetik ez dakitenera eraman behar ditugu irakaskuntzan”

Ez du aurkezpenik behar, izan ere, oso ezaguna da gure artean. Hala ere, hari buruzko datu batzuk emango ditugu. Mungian jaioa izan arren, “Goiko” –hala esaten diote ikasleek– Derion bizi da aspalditik. Bertan, Txorierriko institutuko irakaslea da. Euskarari beti atxikimendu beroa agertu dio, hainbat urtetan hizkuntz arloan eginiko lanetan erakutsi duenez. 1983an, euskaltzain urgazle izendatu zuten.



Hiztegigintzan ibilia da eta irakasteko metodologiari buruzko hainbat liburu idatzi ditu. Gainera, Mendebalde Kultura Alkartearen sortzailetariko bat izan zen. Oraintsu berak idatzitako tesia argitaratu du Euskaltzaindiak, Iker bildumaren barruan: *Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian.*

Zelan dago bizkaieraren egoera orokorrean?

Orokorrean bizkaieraren egoera euskararena da, berbeta bera da-eta, hau da, euskarak gure lurretan hartzen duen izena da bizkaiera eta Zuberoan euskara berberak zuberera izena hartzen du, Atlantikoari gure uretan Bizkaiko Golkoa deritzan moduan eta ozeano berberari Danimarkan parean Iparreko Itsasoa.

Eta Txorierri berezik?

Txorierri ezaguna da bizkaieraren orbiztea, txorierrikoarena. Horrek esan gura du, ikasteaz gain erabili egiten dela. Hala ere, Txorierri estratoak bereiz genitzake: bata, erdaldun elebakarrek osotzen dute; bestea, lanagatik joan-etorrian dabiltzanak; hirugarrena, Txorierriko euskaldunak eta euren artean, euskaraz bizi eta euskararen alde jokatzeari erabaki dutenak.

Irakaskuntzan zelan jokatu behar da, zure ustez, euskaldun zahar eta berrie-kin?

Helburu berberarekin, hots, euskaldun osoak sortzea. Metodoa, ordea, desberdina. Batzuk eta besteak ikasgela berean eduki arren, euskaldunak dakitenetik ez dakitenera eramanik; erdaldunak zerotik hasirik mailaz maila.

“Txorierri 4 estrato bereiz genitzake: erdaldun elebakarrak, lanagatik joan-etorrian dabiltzanak, Txorierriko euskaldunak eta euren artean, euskararen alde jokatzeko dutenak”

Zelan eragiten dute euskara batuak eta bizkaierak euskaldun zaharrengan?

Euskaldun zaharra amaren altzoko berba goxoetatik gramatikara doa; erdalduna ikasgelako ariketetan jasotako hizkuntzatik abiatzen da. Moltz biek ikasten dute euskara batua, baina era desberdinean. Bizkaieran ere antzera, euskaldun zaharrari gurasoengandik datorkio berbeta, kultura-transmisioa, eta eskolak alfabetatu, orraztu egin behar du etxekoa. Bientzat ere euskara batua nazio hizkuntza bilakatuko da, txorierrikoa –euskalkia– euskara batuak betetzen ez dituen funtzioetarako.

Txorierri Institutuan zara irakasle eta urte asko daramazu bertan, nola ikusten dituzu Txorierriko gazteak hizkuntza aldetik? Badute berezitasunik?

Bai, badituzte berezitasunak, beti ere Euskal Herriko egoera nagusiaren para-

duten bitartean, besteak bertsolari edo idazle izan daitezen egin behar baitugu behar.

Tesia argitaratu berri duzu, non egin dituzu hartarako ikerketak?

Maulen, Kanbon, Bergaran, Bermeon, Bilbon, Txorierriin, Getxon eta Leioan. Asmoa Euskal Herria aintzat hartzea izan da, euskalkiaren eta euskara batuaren ataza denoi dagokigu-eta.

“UBIn, euskaldun zaharrek ahoz Txorierriko euren berbeta lantzea eskatzen dute eta idatziz bizkaiera literarioaren berri ere izatea, euskara batuarekin batera”

Eta zenbat denbora eman duzu tesia lantzen?

Tesia egitea ontzia hartu eta arrantzan abiatzea bezalakoa da, urak eta urak –folioak eta folioak- millak eta millak –liburuak eta liburuak- pasatzea harik eta bila zenbiltzen arraina/arrainak topatzen dituzun arte.

Bost urte, arteko esperientzia eta kurtsoen ostean, hau da, unibertsitatean beste karrera bat egiten baino gehiago. Badu, gainera, arrisku handi bat, alegia, porrot egitearena, hasi eta ezin, nabigatu eta nabigatu baina arrainik batu ez.



Maiatzaren 24an aurkeztu zuen Goikoetxeak bere lan berria Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan.

metroen barruan. Txorierriko gazteriaren artean, euskaraz dihardutenak oso kontzientziatuak baino ez dira. Kopuruz ez hainbeste. Edonola ere, gazteria berritzat har daitezke: alfabetatuak, nortasuna dutenak, dinamikoak. Euren inguruan euskarak booma ezagutuko du, Mola jeneralaren bonbardaketak bare daitezenean.

Oztopo nagusien artean leader deitzen ditugun politikoak dira, “euskara sinboloari bai, erabilerari jai” praktikatzuten dutenak. Egunon! Las estructuras

coparticipativas del sistema en sí mismo sostenible...” Agur!

Ikasleen artean zein portzentaia da euskaldun zaharrena? Nola jokatzten duzu haiekin?

UBIn –18 urtekoetan- esate baterako, 52tik 27 dira etxeko euskaldunak. Kopuru honek –irakaskuntzan metodologia egokiz jokatu bada- ahoz Txorierriko euren berbeta lantzea eskatzen du eta idatziz bizkaiera literarioaren berri ere izatea, euskara batuarekin batera. Horrexegatik praktikatzuten dituzte ikasgelan euskara batua eta euskalkia eta irakurtzen Mikel Zarateren “Haurgintza Minetan” edo Juan Luis Zabalaren “Agur Euzkadi”, zeinetan Lauaxetak bizkaieraz diharduen. Akatsak ere desberdinak egiten dituzte euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek.

Irakurleak erraz-erraz ulertuko du zergatik behar diren bereiztu, ezen batzuk oinarrizkoenaz jabetu behar

“Oztopo nagusien artean leader deitzen ditugun politikoak dira, “euskara sinboloari bai, erabilerari jai” praktikatzuten dutenak”

Espezialitateak:

- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Dentaketa urdiazko iberritxoak
- Agurak lekuakartaren plaza. 2
- 48170 Zamudio
- Tel.: 94 452 37 00

7etatik irekia

Crazy Guitar

Zatudio

AVRTENETXE S.A.

MAKINARIAREN SALMENTA ETA KONPOSAKETA

NEKAZARITZA - LOREZAINITZA

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

Arretxalde, 105

Tel.: 94 455 62 66

Fax: 94 455 65 66

48190 ITZAMA (Bizkaia)

Autonomia, 57

Tel.: 94 427 29 18

Fax: 94 427 29 18

48012 BILBAO

Mead

Mead Embalaje S.A.

San Martín, 28

48170 Zamudio - Bizkaia

Tel.: 34 - 94 452 38 48

34 - 94 452 35 16

Telefax 34 - 94 452 20 88

34 - 94 452 20 22

e-mail: lcs3@mead.com



Juan Luis euskaltzain urgazle da 1983tik hona.

Zergatik aukeratu zenuen gai hau?

Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedraduna naiz Txorierri Institutuan. Berez, baina, filosofian lizentziatua izanik, gauzen kausak bilatzea dut gogoko. Hori dela-eta, literatura zalea banaiz ere, hizkuntzara jo nuen, neure lanbideko praktikak sortzen zidan arazoetarik bat teorizatuz argitzera.


Zein da tesiaren haria?

Ikasgelara batzuk euskaraz jakinik datozela —atxikitze (mantentze)-eredukoak-, besteak familia erdaldunetatik —murgiltze-eredukoak-. Metodo desberdinez irakatsi behar zaiela. Horretarako, jaramon egin behar zaiola "Hizkuntzen ukipenari", zeren euskara batua, euskalki literarioa eta lekuan lekuko berbeta elkarri irazirik, josirik bizi direlako. Egon ere hiztunarengan daudela elkarri ukitzen:

"Tesia egiteko orduan, asmoa Euskal Herria aintzat hartzea izan da, euskalkiaren eta euskara batuaren ataza denoi dagokigu-eta"

nik orain euskara batua darabilt; Bizkaia Irratira deitzean bizkaiera literarioa; etxean Mungiako berbakera, Hartu emon diglosiko trukagarrian aurkitzen direla euskalkia eta euskara batua —Unibertsitatean euskara batua da goian, lagun artean Txorierrikoa da ardatz.

Argazkiak: Atotz Goikoetxea
Itxaso Marina



ZEUK AUKERATU

ARRAKASTA EDO...

ARRAKASTA

HEZKUNTZA ESKAINTZA	
FABRIKAZIO MEKANIKOA -MEKANIZAZIOA Maila oraina -2.000 ordu- -PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA Goi maila -2.000 ordu- -MEKANIZAZIO BIDEZKO EKOIZPENA Goi maila -2.000 ordu- KIMIKA -INGURUMEN KIMIKA Goi maila -1.400 ordu-	HEZIKETA ZIKLOAK ELEKTRIZITATEA ETA ELKTRONIKA -IRRISIGURTASUN ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK Goi maila -2.000 ordu- -INFORMATIKAKO TELEKOMUNIKAZIO SISTEMAK Goi maila -2.000 ordu- MERKATARITZA ETA MARKETINA -KUDEAKETA KOMERTZIALA ETA MARKETINA Goi maila -1.400 ordu-
BATXILERGOAK BATXILERGO TEKNOLOGIKOA ATEAK PUBLIKOARENTZAT ZABALTZEKO EGUNAK: MAIATZAK 8 ETA 12 EKAINAK 5 (ARRATSALDEKO 18:30ETAN)	

AURREINSKRIPZIOAK 2003/2004 IKASTURTEA
MAIATZAREN 21IK 9RA:
-BATXILERGOA
-ZIKLOETARAKO "GARRERA PROBA"
AZTERKETA EGIN BEHAR DUTENEK
EKAINAREN 21IK 11RA:
-ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

Unitzaga Ibilbide Kalea, 1 (Derioko Apaizga Begiaren ondoan) 48160 Derio - Bizkaia Tfnaz. 94 403 40 60 - Faxa 94 403 40 61
E-mail: info@txorierri.net - http://www.txorierri.net



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S. COOP.
LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRALA

Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa

Zentroa ikusteko egunak
maiatzak 7, 15, 21 eta 28 (17:00 - 20:00)

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa

Erdi mailakoa
 -Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)
 -Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)
 -Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa
 -Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)
 -Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)
 -Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LHIK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

-Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea
 -Elektromekanikoa
 -Merkataritzako laguntzailea
 -Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak

Lanerako prestakuntzako ikastaroak

-Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhamal@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

Zelan egiten dabe Txorierriko gazteak?



Estibaliz Heras

Nik batueraz egiten dut euskaldunberria naiz eta. Dena dela, bizkaieraz entzutea gustuko dut. Lagunek bizkaieraz egiten dute eta beti barnertzen duzu hitzen bat. Gero botatzen dituzu berba egiteko orduan.



Garazi Rodriguez

Batueraz egiten badut ere, gustatuko litzaidake bizkaieraz berba egitea, hemengo euskara da eta.



Oihane Llona

Nik bizkaieraz egiten dot berba, askoz be gustukoagoa dodalako eta etxean holan egiten dogulako betidanik. Nire ustez, institutuan be bizkaieraz erakutsi beharko litzateke.



Aitor Urigüen

Institutuan gehiago erabiltzen dot batua, baina gero etxean edo lagunaren artean bizkaieraz egiten dot. Bizkaieroa antxinatik jatorrki eta etorkizunerako mantendu behar dogula pentsatzen dot.



Beñat Lekue

Nik bizkaieraz egiten dot bakotzak bere berba egiteko ere gorde behar daukalakoan nagoalako. Hori dala-ta, danok egin beharko geunke ahalegina bizkaieraz egiten Txorierriin.

Izkander Barrena

Txikitatik bizkaieraz egiten dot. Gure aitita-amomen hizkuntzea da eta guk ez dogu galdu behar. Nahiz eta berba pare bat izan, guztiok saiatu beharko geunke bizkaieraz egiten.



ATSEDENERAKO EKIPOAK. % 100 LATEX NATURALA

10 URTEKO BERMEA. EDOZEIN OHETAN ERABILGARRIAK

ARTEAGA

KOLTXOI- DENDA

Antzinako Derioko Seminarioa

DERIO

Telefona: 94 454 51 47

ORDUTEGIA:

Astelehenetik larunbatera

10:00tik 13:00era

eta 16:30tik 20:00ra.

Igandeetan 10:00tik 14era



"Atsedena gure berezitasuna"

TXORIERRI AURRERA

Euskal Herria aurrera

Loiu



Sondika



Derio



Zamudio



Lezama



Larrabetzu



Autodeterminazioa orain

Julene Guarrotxena, Athletic emakumeen futbol taldeko jokalaria:

"Gure garaipena oso aurrerapauso garrantzitsua izan da berdintasunerako bidean"



Lehenengo eta behin, taldea zoriondu behar dugu, baina, batez ere, zu, Arrate eta Iraia...

Eskerrik asko. Egia esan, oraindino ez gara konturatzen zelako garaipena izan dugun. Horri buruz, lehendakariak esan zizkigun berbak gogorazi nahiko nituzke: "Hau kirol garaipena baino zer bait gehiago da, gizartearen garaipena ere bada". Izan ere, oso aurrerapauso garrantzitsua izan da gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako bidean.

Zelan gogoratzen duzu egun hori... San Mamesen jokatzeko errespetua emango du, ezta?

Oso azkar pasatzen da dena, eta telebistako irudiak ikusi behar dituzu egun horretaz benetan ohartzeko. Dena dela, San Mamesen ere Pueblaren aurka jokatu genuen eta bageneukan orduko erreferen-

Orain hilabete batzuk, AIKOR! aldizkarian izan genituen Athleticen dabilzan Txorierriko neskak: Iraia, Arrate eta Julene. Orduan, Super Ligan gogor arituko zirela agindu ziguten. Pasa den hilabetean txapelketa horretan nagusitu ziren San Mamesen, Híspalis taldeari 5-0 irabazita. Oraingo honetan, Julenerekin egon gara, haren lantokian, eta pozarren kontatu dizkigu garaipenari buruzko hainbat kontu.

tea. Jendetza handia batu zen eta egundoko giroa egon zen egun biotan, baina ezin dugu ahaztu Lezamara ere lagun asko etortzen direla asteburu guztietan. Beste alde batetik, lasaitxoago geunden joko aldetik, bagenekielako irabazteko aukera handiak genituela.

Eta harmailak zaleez gainezka...

Zaleak gure motorra dira, aurrera egiteko indarra ematen digute eta. Gainera, kalean eztabaida itzela sortu da geure inguruan: soldatak, San Mamesen jokatzeko eskubidea... Jende asko gurekin dago eta umeengan ere eragina izatea lortu dugu. Izan ere, Guerrerok edo Etxeberriak bezala jokatu nahi dute gehienek, baina orain beste batzuek Nerea edo Tzibi ere badute erudizat. Joko ona egiteko gauza garestia erakutsi dugu eta neska asko futboleko ere lekua badutela ohartu dira.

Garaipena ospatzeko ekintzak ekainean izango dira. Gabarra ere bai?

Nahiago dut gai horretan ez sartu. Guk zaleekin ospatu nahi dugu eta berdindu ospakizunak modu batera edo bestera egingen badira.

Ekainean ere Erregina kopa jokatu da. Prest dagoeneko?

Gogor hasi gara lanean. Entrenatzaileak esan digun bezala, ezin gara lo geratu. Azken garaipen hau urte askoko lanaren ondorioa izan da eta mailari eutsi behar diogu. Ez dakit zelan joango diren gauzak, baina uste dut ahalik eta ondoen egingo dugula. Finalean lehiakide on bat nahi nuke haren kontra jokatzeko. Eliteko jokalariek izatea lortu dugu eta horrek beste indar bat ematen digu helburu gogorragoen alde borrokatzeko.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

OSKARBI
fotografoak
BOSQUE DE ARBOLIZADO

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 605 705 087
E-mail: oskarbi@euskalnet.net

Vertigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Director - Marketing

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

ENDEKO TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
TEL: 944 520 014 / 605 705 087
E-mail: oskarbi@euskalnet.net


hotela
jatorria
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

OLANDO S.L.
AROTEGIA

- Sukaldeko altzariak, neurria eginak
- Bainugelako altzariak, neurria eginak
- Horma-armairuak
- Mahaiak eta aulkiak
- Txokoetarako altzariak

Larrea Industrialea
115 plataforma, 34 neska
48960 Galdakao (Bizkaia) TEL/FAX: 94 456 06 00

Txakurrak direla eta...

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Nahiz eta oinarrizko arauak izan, ziur asko baten batek zalantzak izango ditu txakurra elikatu edota hezitzeko orduan. Santi Mami albaitaritzako Elena Lombanak aholku batzuk eman dizkigu.



Elenak eta Marianek txkeoa egiten diote Gasi.

Ariketa fisikoa eta portaera:

-Etxean bizi diren txakurrek egunean hirutan atera behar dute kalera kaka eta txiza egitera. Gainera, irteten diren bakoitzean ordu erdiko paseoa ematea komenigarria da.

-Baserriko txakurrak lotuta daude eta, behintzat gauez, aske uztea eskertuko dute. Horrela, etxea zaindu eta korrika egin ahaliko dute.

-Ariketa fisikoa eta jolasak oso garrantzitsuak dira txakurrak sasoi onean egoteko.

-Balkoitik edo leihotik kalea ikusteko aukera mesedegarria da txakurrentzat.

-Txikitatik sozializatu behar zaie. Hori dela eta, bi eta lau hilabete bitartean dituztenean pertsona eta txakur askorekin izan behar dute. Gainera, jabeek, agintzen zaienean, txakurrak eserita eta geldirik egotea lortu behar dute. Horretarako, aginduak errepikatu behar dira sarritan. Hasieran saritzat janaria eman ahal zaie, gero hitzak eta ferekak

nahikoak izango dira.

-Oso animalia hierarkiakoak direnez etxean nork agintzen duen erakutsi behar zaie hasieratik. Horrela, txakurkumeak direnean lepotik heldu eta altxatu behar zaie. Halaber, jabeek janaria jarri bezain laster kendu ahal diete. Izan ere, etxeko pertsona guztiek haien gainetik daudela ulertu behar dute txakurrek.

-Normalean sofara igotzen uzten zaie txakurrei kumeak izanda. Jarrera hau ekitzea beharrezkoa da haien jabetzako lekutzat har baitezakete. Horretara, bada, arazoren bat izanez gero, jabeek txakurra lotu eta jaisteko agindua emanaz kateari tira egin ahal diote.

-Etxekoak otorduetan daudenean, ez da komeni jaten ematea. Bestela, mundu guztiari janaria eskatuz gain, ez dute dagokien jana hartuko eta txarto elikatu ta egongo dira.

Elikadura:

-Txakurkumeei egunean lautan eman behar zaie jaten; helduei, ordez, behin edo bitan. Hala ere, egunean bitan elikatzea gomendatzen da. Bestela, janari gehiegi hartuko lukete eta urdailak bira eman lekieke. Odola ez litzateke gorputz osora ailegatuko eta, ondorioz, hil egin litezke.

-Pentsua egunero jan behar badute ere, etxeko janaria eman ahal zaie noizean behin. Ura ere ezinbestekoa da.

-Oilasko eta arkumearen hezurak ez dira gomendagarriak hestean sartu ahal dituzte eta. Horien ordez, behiaren belaun-hezurra edota txakur-dendetan saltzen diren sakatutako hezurak eman ahal zaizkie.

-Gozokiak debekatuta daude. Hala ere, txakurrentzako gailetak jan ditzakete.

Garbitasuna eta albaitariari bisita:

-Hilean behin garbitu behar dira txakurrak. Horretarako xaboi leuna erabili behar da.

-Belarriak eta hortzak ere garbitu behar zaizkie, eta horretarako albaitariari aholkua eskatu behar zaio.

-Parasitoen aurkako aerosola bota behar zaie kaparrak edota arkakusoak harrapa ez ditzaten. Era berean, hestezizareen aurkako pilulak hartu behar dituzte.

-Txakurrak urtean behin eraman behar dira albaitariarenera, txkeoa egin eta dagozkien txertoak jar diezazkien.

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gondoa 59 • Tel. 94 455 51 00 • Fax. 94 455 61 77
48120 LIZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGY
LEZAMA
Goldolizta Auzoa, 36
48120 LIZAMA - Bizkaia
Tel. 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

Floristeria Jada
Floralien, Puzos, 2
48120 Lizama - Bizkaia
Tel. 94 455 61 98

"Backup"

Testua: Alberto Legarreta

Backup datuen edo sistemaren segurtasun-kopia da. Helburua da, informazioa gal-tzen bada, ha berreskuratzea eta, sistema apurtzen bada, barriro instalatu ahal izatea. Arazo bat eukiten danean, haren beharrezakoa izaten da, esaterako, hardwarea (disko gogorra) apurtzen bada, birusik sartzen bada, softwareagaz arazorik eukiten bada edo hutsegiterik izaten bada. Halakoetan informazioa galdu leiteke, eta hagaitik informazio hori guztia edo ahal dan guztia berreskuratu behar izaten da. Dana dala, bereiztu egin behar dira etxeko eta enpresetako ordenagailuak.

Enpresetan

Normalean enpresetan euren backup arauak eukiten ditue zehaztuta. Informatikak garrantzi handia dauka, izan be, enpresak guztiz informatizatuta dagoz eta garrantzi handiko datuak daukez. Bakotzak bere berezitasunak eukiten ditu eta backup arauak ezberdinak izaten dira. Enpresa baten arauai backup politika deritxegu.

Segurtasunaren kopia motak eta harren ezaugarriak asko dira. Bakotzak bere erara erabiltzen dau, baina danak daturik ez gal-tzeko helburuagaz. Hona hemen kontuan euki behar diran gauza garrantzitsu batzuk:

- Non egingo dogu kopia? Zelako eus-karria erabiliko dogu? Ikusi behar da zein-tzuk diran bakotxaren beharrezakak eta irtenbide orokorrak, eta zer espero dan etorkizunean.

Etxean

Etxean ezberdina da, normalean datuak ez dira hain garrantzitsuak izaten eta norberak jakin behar dau egingo dauen edo ez. Geure aholkua da egitea. CD-Rom grabatzailea erabili zeinke, eus-karri merkea eta erabilteko erreza da eta. Zeure erara egin ahal dozu, backup-en helburua kontuan eukita.

Aholku batzuk:

- Datu garrantzitsuen kopia egitea.
- Programa instalatzeko diskoaren kopia egitea.
- Ahal dan guztietan eguneratzea.
- Disketeak ez dira fidagarriak izaten.

- Instalazio barriaren kopia osoa sarri egin behar da.

- Gehien erabiltzen diran backup-ak mota bikoak izaten dira: osoak eta inkrementalak. Backup honek alternatuz egiten ditu kopiak. Inkrementalak bakarrik egiten dau aldatutako fitxategien kopia. Esaterako, astean backup oso bat egin lei eta egune-ro, barriz, inkremental bat.

- Ordenagailuko baliabide asko erabiltzen ditu eta horregaitik askotan ezin da egin. Sistema lanpetuta ez dagoenean egin leike, adibidez, gauean.

- Backup programak arazoak euki leikez beste programa batzukaz.

- Kopia egin dozun euskarriak leku seguru batean egon behar leuke.

- Jardun-denbora altuko sistema (zer-bitzu eta ordenagailu bikoiztuak) beste backup modu bat da.

Baina beste erarik ez badaukazu, erabili disketeak.

- Kopiak leku seguruan gordetzea.
- Kopiak ondo dagozan berrikustea.

Ordenagailua tresna bat da eta hondatu egin daiteke. Beraz, garrantzizkoa da barruko datuak berreskuratu ahal izatea. Hartarako egiten da backup-a. Birus batek, txarto erabiltzeak..., gauza askok ekarri lei datuak galtzea. Gogoratu dagi-gun Murphy-ren legea: "Zeozer oker joan baleiteke, oker joango da". Artikulu honen helburua da backup-ren garrantzia adieraztea eta sarri egitea gomendatzea.

Aramu bakartien sarean II

Askoren ametsak eta burukominak arinduko dituen web gune baten berri emango dizuegu gaurkoan; eliza katolikoaren zein guraso itogarrien jazarpena eragin eta pinotxotarrren pentsamendu eta ideien zabalpena bideratuko duena.

Espainiako soldatapeko komunikabide eza-gun baten orrian sartzekotan ginela agertu zitzaigun pantailaren erdi erdian. Erabiltzaileen parte hartzea bultzatzeko lehenengo sarrera Zeinek handiena da.

Aikor!en aurreko alean aipatu genuen *nontzeberri.com* gunean dagoen zeuk sortu sarreraren antzeko helburua du honek ere, alegia, nahi duenak eta nahi bestetan sormena lantzea. Inori minik emango ez dioten sorkuntza lanak eskatzen dira, aurrez jakite-ra eman gabeak edota auzokide aholandiek lau haizetara zabalduak. Ikus-entzunezkoak onartzen badira ere, idatzitako eta nork bere izenez sinatutako sorkuntzak hobetsiko dira. Zelan igerri da, gunearen arduradunek jakinerazi digutenaren arabera, bisitari gehien jasotzen dituen sarrera. Bertan, ekinaren ekinenez jakitunak izatera iritsi direnen aholkulari talde batek edozein egoerari erantzuna ematen dio, baina horretarako datu bilketa zehatzerako eskabide orria bete behar du erabiltzaileak.

Aurreko sarrera hori bezain erabilia ei da Ezetz igerri. Bertan aurkituko ditugu kamuflajerako, lagunekin ondo geratzeko, maitalearekin urteetan egoteko, alderdi eskuindar baten sartu eta boterea lortzeko eta ez garena garena sinestarazteko beharrezko baliabideen denda birtuala; beste inon ikasi ezin daitezkeen trikimailuen katalogo amaigabea. Gainera, maiatzaren 25a bitartean, konektatzen garen bi orduko bat dohainik izango da. Ordua izan da!!

Oharra: Barkatu, irrikaren irrikaz, web gunearen helbidea ematea ahaztu zaigu:

www.gezurra.es

Testua: Bihotz Bakartien Klubeko kidea

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
Sant Martin sarras, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 00 88 - 55
Faxa: (94) 452 11 46



SUINOR COMPUTER, S.L.
POL. IND. TORRELARRAGOITI, POL. BLOQUE 1, NAVE 3 - ZAMUDIO



¡¡¡ 10 AÑOS CONTIGO !!!

BILBAO INFORMATICA - c/ Automia, 54 tel / fax: 94 421 6254
BARAKALDO INFORMATICA - Avd. Miranda, 3 telefono: 94 4781643
LEIOA INFORMATICA - Avd. Iparraguirre, 54 - local - (galeria batzuk) tel. 94 482 46 38

DERIO FRUTADENDA



Sollubc, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

Askatasunaren edertasuna

Aldaketaren sinbolo unibertsala bada ere, munduan zehar beste esanahi batzuk gordetzen dauz. Japonian emakumeen sinboloa da. Txinako poetek iragankortasuna adierazteko erabiltzen dabe. Greziako margolanetan, bikotekideen arteko zorientasunaren seinale dira. Europar mitologian, arimaren hilezintasuna dakar gogora eta mitologia klasikoan jainkoen mezularia da. AEK-k aurtengo korrikarako bere irudia erabili dau... eta abar luze-luzea.

Ikusten danez, arlo eta era ezbardinetan ibili dabilen tximeleta honek xarma berezia dauka eta badago Larrabetzun hortaz konturatu dana. Gaurko alkarrizketaratua Joseba Dañobeitia da eta sei hilbete daroaz buru-belarri tximeletak biltzen eta sailkatzen. Hemendik aurrera, bere esanak dira idatzitakoak.

Tximeletak sabelean, Joseba?

Eukitekotan, txilipitainak. Tokian tokiko euskara erabiltzeak dakigunetik ez dakigunera eroan behar gaitu, eta gaurkoak badaukoz Euskal Herriko baztar ezbardinetatik etorritako makina bat izen: pertxilotak, tximeleta, pinpilipauxa... Entzunda daukotzat euskal filologo lagun bateri euskara dala gauza berari izena emoteko berbarik gehien erabiltzen dauanetarikoa. Baina zureari erantzunez, urduri baino, berbaldiak zer erakutsiko ete dauanaren kezka.

Mesedez, sarrera zientifiko labur bat gaia kokatzeko.

Animalien erreinuan, insektuena da talderik handiena eta honeek ikasteko zientziari Entomologia deitzen joko. Ugartitasun honek (165.000 espezie baino gehiago) insektuak ordenatan sailkatzera behartzen gaitu eta zatiketa honetarako kontutan hartzen da heldutasunean hegoak daukiezan ala ez, metamorfosis tipoa, ahoa eta abar. Guzti honen arabera, txilipitainak lepidopteroak dira.

Lepidopteroak (txilipitainak), azaletik esanda, egunezkoetan (Rhopaloceras) eta gauezkoetan (Heteroceras) sailkatu daitezke eta azken honeek polilla edo txilipitaina baltza izenagaz ere ezagutzen dira. Gainera, askotan aldrebes uste badogu



Josebak sei hilabete daroaz tximeletak biltzen eta sailkatzen.

ere, lepidopteroen %90a gauezkoak dira, nahiz eta egunezkoak ikusgarriagoak izan edo begibistan gehiago ibili. Euren arteko ezbardintasunik nabariena hegoek atsedenerako hartzen daben posizioa da: egunezkoek bizkar gainean alkartuta izango dabez beti, eta gauezkoek ezin dabe horrelakorik egin eta hegoak hegazkin geldiaren modura egongo dira.

Bizi zikloari dagokionez, metamorfosis osoa 4 fasetan biribiltzen dabe txilipitainek: arraultza, larba (beldarra), pupa (zibo-

ta edo krisalida) eta heldua. Arrazoi honegaitik, emeek arraultzak landareetan ipintzen dabez, larba edo beldarra, jaiotzerakoan, elikatu daiten.

“Metamorfosis osoa 4 fasetan biribiltzen dabe txilipitainek”

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1646

Pol. Torrelagorri
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

AUTOMOCIONES

Autoe
SANTIBAGI 4
TEL. 68870641
64967713

AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelagorri Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 67 69 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Nondik jatortzu zaletasun barri hau?

Arrazoi bat baino gehiago dagoz egon. Batetik, nire ogibidean maisulanetan nabil eta ikasleekin, izaki bizidunen bioaniztasuna jorratzen dogunean, hostoen eta intsektuen bilketa eta azterketa eginten dogu. Bestetik, familian, Olatz eta Xabier dira 5 eta 3 urteko txilipitainak, eta urteak aurrera joan ahala, seme-alaben ikasgurea biztu eta naturarekiko harremanean sakontzeko tresna egokia dalakoan gagoz Asun eta biok. "Tximeleten mihia" filma ikusi dabenak konturatuko dira zertaz ari nazen. Amaitzeko, Fernando Carasa (Gasteiz) eta Juan Antonio Soto (Santutxu) lagunei esker, eurek izan baitira tximeleta bilduma propioa egitera animatu eta butzatu nabenak. Biei, mila esker, esker mila mila bider.

Oraingoz, euskal txilipitainaz osotutako bilduma daukazu ala atzerrikoak ere sartzen dira taldean?

Euskal harrobia emonkorra da edozein arlotan eta geurearen aldekoa behatzetik bekokiraino banaz ere, erbestekoak tar-tean dirala aitortu behar dot.

"Europatik kanpo, esportazioa posible da eta, oztoporik handienak alkartrukaketarako kontaktuak eta prezioa dira"

Eta atzerritarrak fitxatzeko, eragozpenik bai?

Europatik kanpo, esportazioa posible da eta, gehienetan, oztoporik handienak alkartrukaketarako kontaktuak eta prezioa dira. Lege aldetik, zorrotzagoak dira Europa barruan eta salmenta debekatuta dago; beraz, bide bakarrak doaneko alkartrukea eta ehiza dira. Baina ehiza kontrolatua, noski. Txilipitainak aztertzeko baimena Eusko Jaurlearitzako Bioaniztasun Sailak luzatzen dau eta urte amaieran, fitxa baten bidez, egindako ehizaz informatu behar dogu (kopurua, eguna, herria, espeziea eta harrapatutako altuera).

Egitasmo barririk?

Polilla edo txilipitaina baltzen artean Euskal Herritik dabilen Eudia Pavonia haziko dot. Arrautzak hartu, larba edo beldarra jaio arte itxaron, krisalida egin arte basapi-nuagaz elikatu eta, barriro, txilipitainen jaiotzara arte itxaron. Jaiotzerakoan, banan-banan arrak askatu eta emeak gordeko dodaz, bere garaian, ehizara joateko. Bai, bai, ondo entzun dozu. Emeek arrak erakartzeko feromonak botatzen dabez eta honeek kilometro bat baino gehiagoko distantziatik datoz emea ernaltzera. Orduan, emea kutxa baten kokatuta dagan lekuraino, guztiz mozkortuta datoz eta ia-ia etxeraino ekarri geinkez sarerik bota barik. Hori bai sorginkeria.



Hauze da Josebarena tximeleta bilduma.

"Emeek arrak erakartzeko feromonak botatzen dabez eta honeek kilometro bat baino gehiagoko distantziatik datoz emea ernaltzera"

Beno, kontu eder baten amaiera osteko moraleja edo ikasbidea?

Euskal Herriaren antzekoak dirala txilipitainak; txikitasunean handi eta handitasunean txiki. Krisalida egoerako giltzapetik urtetzeko, ausardiak, goitik beherako transformazioa egiten dabe, jakin badakie-lako, askatasunaren edertasuna dakartsie-la. Ikasgai ederrak hartu geinkez naturaren portaeratik.

Testua eta argazkiak: Larrabetzuko Arrekikili Euskara Elkartea



Seme-alabak txilipitainen bila.



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, I
Tfn.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Laurota erreka, errota erreka

“Sondike, Erandio ta Loiu, arto asko erein eta gitxi koiu”. Esaldi zahar hau sarritan entzun izan dogu hiru herriotako biztanleok, adarra jotzea gustukoa dauen jentearengandik. Baina ez dirudi arrazoi handirik daukanik, Loiuako herrian egoan errota piloa kontutan izanik, behintzat. Beraz, Loiu arto gitxi, eta zertarako hainbeste errota?

Gaurko honetan aurkeztu gura doguna ez da ibilbide bat, oinez egiteko moduko ibilbide bat. Hemen egin gura doguna zera da: Laurota errekan kokatuta egozan erroten barri emotea.

Laurota erreka izen bereko auzoan, bertako eskola zaharraren ondoan (gaur egun ingurune areto bihurtua) jaio eta Asua errekaraino heltzen da, biak bat egini katean. Lau-bost kilometro dituen erreka honen bidean hamar errota ebiltzan lanean arto gitxi koiuten zan sasoi haretan. Gaur egun desagertu egin dira gehienak, beste batzuk egoera oso txarrean dagoz eta bat bakarrik dabil oraindik martxan.

Goitik beherantz, hau da, Laurotatik Asuarantz hasita, Pione errota aurkituko dogu lehenengo. Hauxe da gaur egun martxan dabilen bakarra. Ur-indarrez dabilzan errota ikusi eta ezagutzeko aukera ederra dogu bertan. Han dago Jose Errota artoa eihoteko eta koplatarako prest.

Beherago, hemendik ehun bat metro-ra, Txistuerrota ikusiko dogu. Errota hau zutunik dago oraindik, baina egoera txarrean, 1983ko uriolen ondorioz.

Hemendik metro gitxira Azpilueta errota, Azpilueta goikoa ta Azpilueta bekkoa. Urte askotan geldirik egon eta gero, erdi abandonatuta dagoz.

Azpiluetatik beherantz jarraituz, Laskitortara (Laskitu errota) helduko gara. Hau be gaur egun desagertuta.

Laskitortatik Larrakoetxerantz ibaiari jarraituz, Kanposene, eta apur bat beherago, Bekorta edo Beko errota aurkituko doguz. Honetan be ez dago errotarik gaur egun.

Larrakoetxetik aireportura bidean Urikorta dauka. Hemen errota desagertu

Aireportuaren hegaletik Asuara bidean beste errota bat, Beikorta. Beste gehienak lez, hau be desagertuta.

Eta hamargarrena ez dago Laurota errekan, baina bai Beikortatik nahiko paraje. Hau Loiuako Zabalo-etxe auzotik datorren Aransotegi erreka bidean aurkitzen da. Hamargarren hau Errotatxu dogu. Etxe barritzatzea dala ta, oraintsu arte bistan egozan errota zaharra eta antapara kendu egin dabez.

Hauxe da, ba, labur esanda, Laurota erreka inguruan kokatuta hainbeste urtetan eten barik lanean ibili ziran erroten historia txikia.

eta gauda-
rentzat kortak egin ziren, baina beste kasu guztietan lez, izena ez datorkio kortatik, erroretatik baino, Uriko errota.

Testua: Juan txu Bilbao

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lekendakari Luizako Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49

Zamudio (Bizkaia)

CENTRO MASAJE

LASAI

Tratamientos:
- Ultrasonidos (Electroterapia)
- Masajes
- Quiropraxia
- Acupuntura
- Fisioterapia
- Pilates
- Yoga

Clínica especializada en:
- Cines de recuperación (Rehabilitación)
- Tratamiento de la mano
- Clínicas deportivas
- Parálisis

C/ Vitoria, 43 (Vitoria)
9100 11000 (Bilbao)
Tel: 94 452 14 49
Móvil: 655 14 24 00
Fax: 94 452 14 49
Email: l.lasai@lasai.com

Inmobiliaria ETORKI

Hortiko Plaza, 1 (Bilbao)
Tel: 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53

40160 DLRJ3

Vietnamgo iparraldean oinez

Testua eta argazkiak: Iñigo Urrutia

Hanoitik (Vietnamgo hiriburutik) abiatu eta gau osoa trenean igaro ondoren, Lao Cairra heltzen gara, Txinarekin muga egiten duen herrira. Handik autobusa hartu eta Sa Para goaz, gure bidaiaren abiapuntura. Lau egunean 55 km egiteko ustea daukagu, oinez, vietnameraz mintzatzen ez diren tribuen artean.

Herritik abiatu eta bidezidorretatik egiten dugu aurrera, beti ere ibaiari jarraituta. Eskumatara nahiz ezkerretara mendiak uzten ditugu. Mendiok arroza ereiteko erabiltzen diren terrazek beteta daude eta zeruraino doazen eskailerak dirudite. Goialdetik behera doan ura behin eta berriro aprobetxatzen dute. Hemen ere naturak atzera egin du gizakiaren eskuen erruz. Herriak ere ikusi ditzakegu. Etxeak egurrezkoak dira; batzuek latorrizko teilatua dute eta beste batzuek, berriz, lastozkoak. Etxe xumeak dira. Hala ere, ezin dugu esan bertara ez dela hormigoirik heldu, Han Vietnamgo banderaren atzean, blokez egindako edifizio bat dago, kremaz. Eskola da. Bertan, tribu bakoitzaren hizkuntza eta kultura alde batera utzita, erregimenaren historia ikasten dute.

Pasatzen ditugun lehen herriek ez diote turismoari muzin egiten, hartaz baliatzen dira, hainbestearino ezen, herriak

barik, merkatu hutsak baitirudite. Umeak eta zaharrak denetarik saltzen saiatzen dira. Aurrera joan ahala, berriz, zure presentziak jakin-mina pizten die, eta apur bat lotsaturik hurbiltzen zaizkizu.



Uraren indarrak baliatuta industriak sortzen dituzte.



Etnia bakoitzak bere janzkera tipikoa izaten du, Mong etniakoek beltzez janzten dira.



Bideak estuak dira, garraiolaria gizakia da, baita umeak ere.



Vietnamdarrek gure alfabetoa erabiltzen dute.

“LAIA HOTEL MUSEOA”



L A I A	Parke teknologikoa
	Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
	Tel. 94 431 76 80
	Fax 94 431 76 81
	laia@saviat.net www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemek esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berrizailena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atseden hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.



Aurreko galderaren erantzuna: Sondikako zahar etxearen izena Larrabarrena da.

Irabazlea: Alaitz Barrena

LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Non lortu du Virginia Berasateguik urrezko domina?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), ekinaren 11a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Babak arrozagaz

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Kilo bat baba
- Kinpula bat
- 200 gramo arroz
- Oliba orioa

Prestatzeko era:

Kinpula txikitu eta oriotan gorritu. Bota tomatea, azala kenduta, txiki-txiki eginda eta babak. Hau euki egiten 10 bat minutuan. Gero bota pernila (urdaiazpikoa) txikituta eta arroza, eta nahastau. Bota litro bete ur (gitxi gorabehera) eta 30 minutuan irakin dagiala. Euki bost bat minutuan tapauta.



Mari Tere Onaindia



Zapoa Aramendi erara

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Zapoa
- Otarraixkak
- Txirlak
- Berakatz zatitua
- Olioia
- Irina
- Brandy
- Arrain zopa

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin, olioia eta berakatz zatitua sutan jarri eta zapoa irinetan pasatuko dugu. Olioia bero dagoenean, arraina botako dugu. Zapoa erdi erreta egondakoan, otarraixkak eta txirlak gehituko ditugu. Azkenean, arrain zopa eta brandy-zorrotada bat botako ditugu.



Aramendi jatetxea (Zamudio).

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklitzeko Zentro Aurreratua



Tratamendu lerroak

- Erabilitako olioak
 - Agortutako taladrinak
 - Disolbatzalleak
 - Automozio
- hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefona: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619



OKINDECIA-DASTALEKUA

Aretxalde, 64
Ieft.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Izarretara bidean zihoan txakurra "

Henning mankell

Alemaniko gazte liburu onenaren saria irabazitako liburu honek mutiko baten bakardadea kontatzen du.

"Las trece rosas"

Jesús Ferrero

Madrilen kokatzen da istorio hau, 1939an. Benetako gertakizunetan oinarritzen da eleberrria.

Gerra amaieran hamairu emakume atxilotu eta honeen istorioak aztertzen dira.

DISKOAK

"Bapatean"

Seiurte

1997an sortutako Berrizko lau-kote honek Euskadi gazteko saria irabazi eta "sei urte" geroago ateratzen dabe pop-rock doinuaz osatutako lehen diska.

"Pyrena 2003"

Ekinaren 20,21,22an Ribagorçan ospatuko da Pirineoetako jaialdia, eta azoka, ibilbide eta kirolez gain hainbat musikari izango dira bertan, besteak beste Euskal Herriko Ibon Koteron.

DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Aurkitu azokako 6 ezberdintasunak.



Aurkitu dituzu
ezberdintasunak?
Hemen duzu
soluzioa.



Euskal Herriko

DEUTZAK

KOMUNEKO FILOSOFIA:
AURPEAIA ARIMAREN
ISPILUA BADA, BATZUK
KAKA EGITEAN ZORION-
TASUN AURPEAIA IZA-
TEN DUTE (SARREA
GUREN BIZITZAREN
GAINKIZUNEN ARDATZA
DENAREN SEINALE.)

BESTE BATZUK, BERRIZ...

SARRE EGITEAN KAKALARRI AURPEAIA
IZATEN DUTE (KAKA GUREN BIZITZAREN
ARDATZA BIHURTUZ)

AROTZ T-NA G31

ZUZUKO, MIREN & D-AROTZAKO INFORMATIKO

Irteerak

Derio

Araban Euskaraz. Ekainak 8. Oion. Tximintx taldeak antolatuta.

Zamudio

Araban Euskaraz. Ekainak 8. Oion.
Julio Bocca eta Balet Argentinarra. Ekainak 4. Arriaga antzokian.
El Gran Wyoming y el Maestro Reverendo. Ekainak 19. Arriaga antzokian.

Lezama

Rafting-a. uztailak 6; Multiabentura, uztailak 20; Raid-a, uztailak 27. Galdetu liburutegian.

Kirola

Zamudio

Futbito txapelketa. Uztailean. Ekainaren 23ra arte eman daiteke izena.

Lezama

Plater Tiroa, Lezamako XIV. Sari Nagusia. Ekainak 1, 10:00etan, Errekatxun.
Futbito txapelketa. Uztailean. Ekainaren 17a baino lehen eman behar da izena. Galdetu liburutegian.

Ikastaroak

Lezama

Eskalada. Ekainak 15. Gailur mendi taldeak antolatuta.
Tenisa. Uztailaren 14tik 30era bitartean eta abuztuaren 1etik 29ra bitartean, kiroldegian. Bizia Kirol taldeak antolatuta.

Jaiak

Lezama

San Juanak. Ekainak 23, frontoi atzean. Tailerrak, puzgarriak, afari-merienda...

Larrabetzu

San Juanak. Ekainak 23, 22:00ak inguruan, antzerki herrikoia suaren inguruan.

Udalekuak

Zamudio

Uda 2003. Uztailaren 8tik abuztuaren 23ra arte. Uztailaren 2ra arte eman daiteke izena.

Lezama

Uda. Ekainaren 30etik uztailaren 11ra arte. Ekainaren 17a baino lehen eman behar da izena. Galdetu liburutegian.

Filmak eta antzerkia

Loiu

100 años de perdón. Ekainak 13, 19:30etan, Jubilatuen Etxean.

Sondika

Las aventuras de Tete y Maripi. Ekainak 20, 19:30etan, Jubilatuen Etxean.

Derio

Los babiosos. Ekainak 6, 19:30etan, Kultur Aretoan.

Zamudio

Spy kids II, uztailak 14. Dragon Hill, uztailak 21. Mortadelo y Filemón, uztailak 28. Guztiak, 19:30etan, dorretxean.
Siamesas pero no revueltas. Ekainak 28, 19:30 Dorretxean.

Lezama

Spy kids II, ekainak 6. Dragon Hill, ekainak 13. Mortadelo y Filemón, ekainak 20. Guztiak, Kultur Aretoan.

Erakusketak

Zamudio

Fidel Rasoren argazkiak. Ekainaren 6tik 20ra bitartean.

Sondika

Udal lantegi eta ikastaroen lana. Ekainak 8, 11:00etatik 14:00etara. Goronda Beko kiroldegian.
Eduardo Ruizeko margoak. Ekainaren 2tik 30era, liburutegian.

Umeentzako ekitaldiak

Sondika


Detraka taldea. Ekainak 20, San Juan zelaian.

Lehiaketak

Sondika

Kaleko pintura. Ekainak 22. Oinarriak Udaletxean.

ZAMUDIO DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
COOPERATIVA AGRARIA Y GANADERA DE PRODUCTORES DERIO
HERRI KULTURAREN ZERBITZUAK
Santi Mami antzokia, 1
Tel: 94 454 18 00
Fax: 94 454 17 11
EXT: ZAMUDIO (Kalea)



SANTI MAMI
ANTZOKIA
Tel: 94 454 18 00
Fax: 94 454 17 11

OPTIKA IKUSLAN

Diagnostiko graduatuko
kontaktu lentak
Funtziozko beharretarako
Lodiazango markak.

Ora kalda, 3 1/2 ordu. 91 452 28 18 ZAMUDIO

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Rúa de Sábado y Jang, 5 - Parada de Autobuses, 2 - Zamudio, 48911 - 91 452 28 18
Telefono 94 452 28 10 - Fax 94 452 28 12
Zamudioko Polizia-delegazioa Telefonoa 94 452 21 20 - Fax 94 452 20 74

MENFORSAN S.A.
IZURRIEN KONTROLA

Menforsan, izurrien kontrola - Ingurumen taldeak
Udaren publikazioen alaba - Ingurumenko alaba

- Izurrien kontrola.
Zabalduzko onak, puzgarriak, afariak.
- Udaren publikazioen alaba.
Antzerki gailuak, teatroak, kirolak eta abar.
- Ingurumenko alaba.
Albarak, albarak eta abar, albarak eta abar, albarak eta abar.
- Pipi, albarak eta abar, albarak eta abar, albarak eta abar.
- Albarak, albarak, albarak, albarak eta abar, albarak eta abar.

Berre osoa

AVDA. PINA, 17 - 48170 ZAMUDIO - BIXAIA - APDO. 1289 BILBAO
TEL: 94 452 02 64 - FAX: 94 452 30 46



Et rk zun Er k tz n

G r n t In uru r r n rt n.

T kn l t En l u r n rt n.

n zn .



a u

In ustr

Tur

r uls r s,S. .

atera gorria!



k=